

## **Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak 61 lanpostuko enplegu publikoaren eskaintza onetsi du**

*Plaza gehien erizaintzako laguntzaile kategorian izango dira (51), ondoren daude gizarte lana (7), psikologia (2) eta errehabilitazio medikuntza (1)*

*Osasun egoerak horretarako aukera ematen badu, datorren urtean berriro ekingo zaie pandemia dela eta atzeratutako 2018ko eta 2019ko lan eskaintza publikoen lehenengo probei, aste honetan onetsitakoekin batera*

*Hiru urteko egutegia antolatu da enplegu publikoaren hiru eskaintzak gauzatzeko, datorren urtean 101 plazaren deialdiarekin hasita: gizarte laneko 42, 38 monitore plaza eta psikologiako 21*

**Gasteiz, 2020ko abenduren 28a.** Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) 2020ko enplegu publikoaren eskaintza jarriko du abian, eta 61 plaza eskainiko ditu, lau kategoriatan banatuta. Horietatik 51 erizaintzako laguntzaileei dagozkie, 7 gizarte laneko profesionalei, 2 psikologiako langileei eta bat errehabilitazio medikuntzari. Horiek guztiak foru aldundiaren gizarte zerbitzuetako erabilzaileei zuzeneko arreta ematen dieten profesionalei dagozkie. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak azken bost urteetan onetsi duen bosgarren enplegu eskaintza da.

61 plazetatik 55 sarbide librekoak izango dira, eta gainerako 6ak barne sustapeneko sistemakoak. Derrigorrezko hizkuntza eskakizuna izango dute 20 plazak, eta 6 plaza gorde dira desgaitasuna duten pertsonentzako. Plaza horietatik bat desgaitasun intelektuala duten pertsonentzat izango da. Lanpostu horrek berriazko deialdia izango du, desgaitasun intelektuala duten pertsonentzat aurreko EPEetan gordetakoekin batera.

Emilio Sola Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak eta Patxi Antón GOFeko gerenteak eman dute enplegu publikoaren eskaintzaren berri, foru erakundearen administrazio kontseiluak onetsi ondoren, eta bihar Foru Gobernu Kontseiluak behin betiko oniritzia ematea aurreikusten da.

Emilio Solak adierazi du, pandemiaren ondorioz aurtengo deialdiak atzeratu behar izan direnez, berriz ekingo zaiela datorren urtean 2018ko eta 2019ko deialdiei, 2020ko EPEarekin batera. "Berriz ekingo diegu probei epeak etetearen ondorioz eta orain arte inoiz bizi izan ez dugun osasun larrialdiaren ondorioz eremu guztietan eragina izan duen eta espero izatekoa zen atzerapenaren ostean; izan ere, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen ahalegin eta baliabide guztiak gaixotasunari eustera eta prebenitzera bideratu behar izan dira".

"Aurreikuspenen arabera, ekainean irekiko da izena emateko epea, eta EPEko lehen hautaketa probak datorren urtean egingo dira, ziur aski azaroan, pandemiaren egoerak horretarako aukera ematen badu", zehaztu du.

Foru erakundeak hurrengo hiru urteetan 2018ko, 2019ko eta 2020ko EPEetako proba guztien egutegia antolatu eta horiek bateratu nahi ditu, enplegu publikoko hiru eskaintzetako kategorია berberetako hautaketa prozesuak deitzeko urtero.

Hau da probak gauzatzeko egutegia:

	<b>2018ko EPE</b>	<b>2019ko EPE</b>	<b>2020ko EPE</b>	<b>PLAZAK GUZTIRA</b>	<b>GAUZATUKO DEN URTEA</b>
PSIKOLOGOA	17	2	2	21	2021
GIZARTE LANGILEA	29	6	7	42	
MONITOREA	30	8	----	38	
MEDIKU ERREHABILITATZAILEA	--	2	1	3	2022
TERAPEUTA OKUPAZIONALA	--	3	----	3	
MANTENTZEKO OFIZIALA	--	5	----	5	
ERIZAIN LAGUNTZAILEA	---	27	50	77	2023
<b>GUZTIRA</b>	<b>76</b>	<b>53</b>	<b>60</b>	<b>189</b>	

(Oharra: 2020ko eskaintzan desgaitasun intelektualeko plaza falta da; izan ere, deialdi espezifiko batean gauzatu da haren oposizio aldia).

Horiek horrela:

- ✓ 2021ean, aurreikusita dago psikologo (21), gizarte langile (42) eta monitorea (38) kategorien deialdiak gauzatea. Guztira 101 plaza deituko dira kategoría horietarako.
- ✓ 2022an, mediku errehabilitatzailearen (3), terapeuta okupazionalaren (3) eta mantentze lanetako ofizialaren (5) deialdiak daude aurreikusita. Guztira 11 plaza deituko dira, baina gehiago izan daitezke, 2021eko EPEkoak gehituta.
- ✓ 2023an, erizaintzako laguntzaileen 77 lanpostu deitu nahi dira, eta horiei 2021eko eta 2022ko EPEetakoak gehituko zaizkie.

Beraz, datozen hiru urteetan guztira 189 plazarako deialdiak egingo dira, eta horiei hurrengo enplegu publikoko eskaintzetan onartzen diren plazak gehituko zaizkie. “Benetan uste dugu enplegu publikoko prozesu horietarako deialdiak egiten jarraitu behar dugula, bitartekotasun tasa ez dadin gehiago handitu, orain % 40 ingurukoa baita”, azaldu du foru diputatuak.

Enplegu publikoaren eskaintzaren proposamen hori Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Langileen Batzordeko ordezkari sindikalen gehiengo zabalak onartu du.